



Topaketa honi hasiera emateko, Josefen historia ikusiko dugu (irakurri eta/edo Power point), Itun Zaharreko historia ugarietako bat. Josef Jakoben semeetako bat zen.

«Zer iruditu zaizue Josefen jokabidea? Eta bere anaiena?».

Liburua hartu eta 73. orrialdean zabalduko dugu. «Zer egiten ari dira haurrak? Komunikatzeko beste modurik ezagutzen al duzue?» Telefonoa, morsea, zeinuak, posta elektronikoa....

74. orrialdean, idatzi duten esaldia irakurriko dugu; alderantziz zegoena, alegia.

Eukaristian, Jainkoaren hitza entzuten dugu, Bibliako irakurgaietan jasota baitago.

Eukaristiaren atalen irudiak umeen tartean banatzen ditugu eta bitartean atal bakoitza argitzen dugu.

1. Parrokian biltzen gera. Apaizak ongi-etorri ematen digu eta denok aitaren egiten dugu (katekistak umeekin batera)
2. Egindako okerkerie gatik (gezurra esan, desobeditu...) barkamena eskatzen dugu.
3. Irakurgaiak entzuten ditugu, ebangelioaren aurretik aitaren egiten dugu (katekistak umeekin batera). Ondoren, apaizak esplikatuko digu Jesusek irakurketen bidez zer esan nahi diogun.
4. Ofrendak aurkezten ditugu, ogia eta ardoa, gure pozen eta penen irudi bezala.
5. Konsagrazioa. Apaizak ogia eta ardoa bedeinkatzen ditu, azkenengo afarian Jesusek esandako hitzak errepikatzen.
6. Aita Gurea errezatzen dugu eta bakea ematen gera.
7. Ogia hartzen dugu.
8. Apaizak bedeinkapena ematen digu y “joan zaitezte pakean” esaten digu.
9. Pozik irtetzen gera prest Jesusen esana egitera.

Eukaristiaren atalak horma-irudian ORDENEAN itsatsen ditugu.

89, 91 eta 93 orrialdeko irudiak begiraten ditugu. Eukaristiarekin zer ikusi dute?



Josek jantzi berri-berria zuen. Aitaren oparia zen. Jantzi apaina, koloretsua, marra gorri, urdin eta horiak zituena sigi-sagan. Egun bereziatarako jantzia zen, baina Josek noiznahi janzten zuen, ia-ia egunero.

- Begiratu!- esaten zien Josek anaiei-. Ikusi nire jantzi berria.
- Aitaxok denetik ematen dizu beti. Gu baino maiteago zaitu. Hori ez da zuzena! – kexatzen ziren anaiak.

Josek hamaika anaia zituen: hamar bera baino zaharragoak eta bat gazteagoa. Baina haietako inork ere ez zuen berea bezalako jantzirik, ezta Benjamin txikiak ere.

Aitak, Jakobek, Jose zuen maiteena. Anaiak jeloskor zeuden Joseran anaietatik.

lauk ardiak zaintzen jarduten zuten. Anaiok bihurrikeriaren bat egiten zutenean, Josek aitari kontatzen zion.

- Kontakatilua!- esaten zioten txilioka anaiek.

Orduan, Jose bere ametsak kontatzen hasi zitzaien.

- Garia ebakitzen eta gari-balak lotzen ari ginen- esan zien-. Zuen gari-balak nirearen aurrean makurtzen ziren.

Eta gaineratu zuen Josek:

- Beste amets bat ere izan nuen: Eguzkia, Ilargia eta izarrak nire aurrean makurtzen ziren.
- Nor uste duzu zarela?- hartu zioten kargu anaiek. Gero eta gorroto handiagoa zioten Joseri.



Egun batean, anaiak kanpoan zeudela artaldea zaintzen, Jakobek esan zion Joseri:

- Zoaz eta begiratu ea dena ongi dagoen.

Jose anaien bila joan zen. Egun berezietako tunika apaina zeukan jantzita. Anaiak urrutitik ikusi zuten hurbiltzen

! Ezagutuko ez zuten, bada! Mila aldiz ikusia zuten tunika hura, marra gorri, urdin eta horidun tunika!

- Horra hor ametsen mutila- esan zuten-. Oraintxe dugu aukera hartaz libratzeko. Eta guk hil eta gero, aitari basapiztia batek hil duela esango bagenio ?

Hainbesteko gorrotoa zioten, ezen Jose hil nahi zuten.
Ruben, hala ere, salbatzen saiatu zen.

- Eta hil beharrean putzu horretara botatzen badugu? Ez da beharrezkoa min ematea- proposatu zuen. Jantzia kendu eta putzura bota zuten Jose.



- Atera nazazue, mesedez, atera nazazue! – erregutzen zien Josek. Baina haiek ez entzunarena egin zioten.

Handik gutxira, gizon batzuk pasatu ziren. Egipto urrunera zihoazen eta gameluak balio handiko salgaiz gainezka zeramatzen.


- Eraman dezatela Jose!- proposatu zuen Judak-. Eta sal dezatela Egipton.

Halaxe, bada, Egipto urrunera eramane zuten Jose.
Joseran anaiak haren tunika zikindu eta zimurtu zuten, eta gero etxera joan ziren.


- Basapiztiaren batek hil du – esan zuen Jakobek, jantzia ikusi zuenean.
Negar batean aritu zen, saminez beterik. Uste zuen ez zuela Jose berriz ikusiko.
Jainkoak, hala ere, asmo berezia zuen Joserentzat.



8



5



9



7

